



EUSKARA JENDEA

Aniztasunaren bidean

C MAILA ikaslearen kaiera

“EUSKARA JENDEA” DOKUMENTAL SORTA

Zein izan da gure hizkuntzaren ibilbidea historian zehar? Nola bizi izan du gure jendeak euskara? Nolako eragina izan dute hurbildu zaizkigun herri eta kultura desberdinek?...

“Euskara jendea” dokumental sortak galdera horien eta beste hainbaten erantzunak eskaini nahi ditu. Horretarako, Xamarrek 2006an Pamiela etxean argitaratutako izenburu bereko liburua hartu du abiapuntu, eta liburuak bezala, modu ulerterraz eta atseginean gure hizkuntzak eta gure jendeak eskuz esku egin duten ibilbide luzera hurbiltzea du helburu.

Lana 45 minutu inguruko sei dokumentalek osatzen dute:

- I. HISTORIAREN ATARIAN
- II. ERROMAKO INPERIOAN
- III. ANIZTASUNAREN BIDEAN (ERDI AROA)
- IV. MUGETAN GAINDI (ARO MODERNOA)
- V. GERREN ARTEKO PIZKUNDEAN (1800–1945)
- VI. MUNDUA OSATZEN

KAIER DIDAKTIKOAK

Kaier didaktiko hauen helburua “Euskara jendea” dokumental sorta B eta C mailako euskara ikasleei hurbiltzea da. Horretarako, dokumentalen kontakizunei jarraitzeko eta aipatutako mailei dagozkien hainbat eduki lantzeko jarduerak eskainiko dira kaieretan. Jarduera horiek bai banaka (ikasleak bere kabuz), bai taldeka (euskara eskoletan) erabiltzeko aukera eskainiko dute.

KAIERAK BANAKA ERABILI

Nahi izanez gero, kaier hauek bere kabuz erabili ahal izango ditu ikasleak, irakaslearen edo ikaskideen laguntzarik gabe. Horretarako ariketa bakoitzaren enuntziatua arretaz irakurtzea eta jarraitzea besterik ez dago, “talde lana” sinboloa duten atalak alde batera utzita (👥).

Ariketen erantzunak lan bakoitzaren azken orrian aurkituko ditugu.

ANIZTASUNAREN BIDEAN

V. mendean, Erromako Inperioaren ahultzearekin batera, mila urteko garai gorabeheratsuan sartu zen Europa: Erdi Aroan. Garai honek aldaketa ugari ekarri zituen politika, kultura eta ekonomia arloetan egungo Europako oinarriak jarriz. Baina, nola bizi izan zituzten mende horiek gure arbasoek? Horren gaineko zalantzak argitu nahian, “Euskara jendea” sortako hirugarren dokumentalak Erdi Aroan osteratxo bat egitera eramango gaitu.

AURKIBIDEA

Dokumentala ikusi aurretik

ERDI AROARI BURUZ

1. Erdi Aroaren eskema osatu. 4. orr.

Helburua: Dokumentalaren ikusketa prestatu, garaiko testuinguruari erreparatuz.

NIK ESANGO NUKE...

2. Aymeric Picaud eta euskaldunak. 7. orr.

3. Nolakoa ote zen orduko Euskal Herria? 8. orr.

Helburua: Dokumentalaren ikusketa prestatu, norbere ezagutzak eta usteak aktibatuz.

Dokumentalaren ikusketa

APUNTEAK HARTU

4. Apunteak jasotzeko aholkuak. 9. orr.

Helburua: Dokumentalak eskaintzen duen informazioa modu antolatuan jaso.

Dokumentala ikusi ondoren

KONTATZEKO ESKEMA

5. Eskema egiten urratsez urrats. 11. orr.

Helburua: Gai bati buruz mintzatzeko edo idazteko eskemak prestatzen trebatu.

Ondorioak eta auto-ebaluazioa 14. orr.

Erantzunak 15. orr.

Dokumentala ikusi aurretik: Erdi Aroari buruz

Erdi Aroari buruzko dokumentalak kontatuko digunari behar bezala jarraitu ahal izateko, oso lagungarria da garaia irudikatzea: Nondik nora doa Erdi Aroa? Zein dira mende haien ezaugarri esanguratsuenak? Bada, irudi hori egiten hasteko ondoko ariketa proposatzen dizugu.

1. ERDI AROAREN ESKEMA OSATU

1.1 Eskemak oso lagungarriak izan daitezke historia gogoratzeko. Izan ere, eskemetan datu esanguratsuak labur eta egoki antolatu ahal ditugu. Horrela, bada, irakur ezazu arretaz Erdi Aroaren aurkezpen labur hau, eta osa ezazu ondoko orriko eskema.

ERDI AROA EUSKAL HERRIAN

V. mendearen hasieran, Erromako Inperioaren ahultzearekin batera, Europako ekialdetik etorritako alanoak, bandaloak eta sueboak euskaldunen hegoaldean kokatu ziren, Iberiar penintsulan. Laster, ordea, bisigodoak etorriko ziren, baita lurralde horietan nagusitu ere. Iparraldean, bitartean, frankoak Galiaren jabe egin ziren.

Garai haietan, beraz, auzokide berriak agertu zitzaizkien baskoiei hegoaldean zein iparraldean, eta sarritan haiekin liskarretan izan arren, gehienetan akordioak bilatzen ahalegintzen ziren. Erromako Inperioa hautsita zegoen. Mundua puskatzen ari zen, eta boterea zatikatzen hasi zen: lurraldean lurraldeko botereak sortu ziren.

VI. eta VII. mendeetan zehar Erromatar garaiko hiri batzuk desagertu ziren, eta apurka apurka, herriak eta herrixkak ugalduz joan ziren. VIII. menderako herrixka sareak aurki zitezkeen nonahi. Horrela botere zentrala ahuldu eta tokian tokiko botereak agertu ziren. IX. menderako familia batzuek hartu zuten indarra, eta hauek elizak sartu zituzten herrietan: elite berriak sortzen ari ziren.



VIII. mendearen hasieran, 716.ean, musulmanak Iruñera iritsi ziren bisigodoak menderatu ondoren. Garai haietan Baskoien hegoaldeko lur asko islamiartu egin ziren Banu Qasi leinuaren mende.


Mendearen amaieran, 778.ean, Orreagako gatazka ospetsua izan zen. Gatazka honetan Iruñea suntsizetik zetorren Karlomagnoaren tropen atzealdeak sekulako porrota jaso zuen baskoien erasoen ondorioz. IX. mendearen hasieran, 824.ean Eneko Aristak Iruñeko Erresuma sortu zuen Banu Qasi tuterar musulmanen eta Iruñeko diozesiren laguntzari esker. 1162.etik aurrera, Nafarroako Erresuma izena hartu zuen.


Mende honen hasieran Donejakue apostoluaren legenda ere sortu zen. Legenda horrek, oinarri historiko handirik izan ez arren, indarra hartuz joan zen, eta XI. menderako erromes bide garrantzitsu bilakatu zen. Galiziako Santiago, Baiona, Iruñea, Lizarra, Donostia eta beste hiri garrantzitsuekin lotzen zuen, eta bidean ideiek eten gabe zirkulatzen zuten erromesen ofizioak, tradizioak, istorioak eta kantak elkartrukatuz.

XII. eta XIV. menden artean hiribilduak sortu ziren: Guardia, Ainhoa, Bastida, Bilbo, Urduña, Donapaleu, Balmaseda, Bergara, Antoñana... Lurraldearen antolaketa soziala aldatu zen. Hiribilduek inguruko herriak eta herrixkak zituzten, eta horien merkataritzarako eta administraziorako guneak ziren. Haiei esker dinamismo ekonomiko handia sortu zen, batez ere Bizkaian eta Gipuzkoan, merkataritzaren garrantzia handitu zen, Burgesiak indarra hartuz joan zen, eta botere politikoaren kontrol nahiak aristokrazia zaharraren eta burgesiaren arteko tentsioak areagotu zituen Erdi Aroaren amaieran. Hortik datoz XIV. eta XV. mendeetako bandoen arteko liskarrak: pobreziatik ateratzen ari ziren lurretan nor gailenduko zen zegoen jokoan; eta Koroaren laguntzaz, burgesia nagusitu zen.

Erdi Aroaren amaiera aldaketa aipagarri batzuek markatu zuten: Euskal Herrian, bereziki, Nafarroako Konkista (1512); Europa mailan, Gutenberg-en inprenta modernoaren asmakizuna, eta Cristobal Colon Amerikara heldu izana.

1.2 Orain, irakurri duzuna gogoan, bete itzazu ondoko eskemaren hutsuneak:



1.3  Elkartu ikaskide batzuekin, alderatu egin dituzuen eskemak, eta elkarren laguntzaz behin betiko eskema osatu.

Dokumentala ikusi aurretik: Nik esango nuke...

Zerbaiti buruz dakiguna edo irudikatzen duguna abiapuntu aparta da gauza berriak ikasteko. Oraingoan, hain zuzen ere, hori egitea proposatzen dizugu: Erdi Aroari buruzko dokumentala ikusi aurretik, hainbat konturi buruz esango zenukeena pentsatu eta idatziz jaso. Baina, zeure usteak azaldu aurretik, irakur ezazu lagun honen iritzia.

2. AYMERIC PICAUD ETA EUSKALDUNAK

Donejakue bideari jarraiki, erromes asko ibili dira euskararen lurraldean, horien artean Aymeric Picaud monje eta idazlea, XII. mendean Codex Calixtinus eskuizkribua idazteagatik ezaguna. Aymericek ohar ugari jaso zituen bidean ezagututako lekuei eta jendeari buruz, eta ohar horien artean ez dira falta gure arbasoei buruzko aipamenak. Nola deskribatu gintuen Picaud erromesak?

2.1 Ondoko testuari falta zaizkion esaldiak behar bezala euskaratzen badituzu, Aymeric Picaud erromesak euskaldunei buruz pentsatzen zuena irakurri ahal izango duzu (letra argiz jasotako hitzak, latinezko testu originalean euskaraz idatzitako hitzak dira).

Nafarrek eta euskotarrek.....(1) , baina begitartea zuriagoa dute euskotarrek nafarrek baino.

Nafarrak belaunetarainoko oihal beltz laburrekin janzten dira, eskoziarren erara eta *lauarcas* 'abarkak' deitzen dituzten oinetakoak erabiltzen dituzte, ondu gabeko larru iletsuz eginak, oinetara lokarriz lotuak, oinazpiak soilik inguratu eta gainerakoa agerian uzten dutenak. Ilezko gainjantzi beltz batzuk erabiltzen dituzte ordea, luzeak, ukalondoetarainokoak, azpilduradunak longainen antzera *saïas* deitzen dituztenak.

Zinez itsusi janzten dira eta itsusi jan eta edaten dute. Nafar etxeko guzti-guztiek, hala jopuak nola ugazabak, hala neskameak nola ugazabandreak,(2), koilararekin barik bakoitzak bere eskuekin, eta edan edalontzi bakarretik edaten dute.(3).

Berbetan entzungo bazenitu, adausika ari diren txakurrekin oroituko zinateke,(4): Jainkoari *Urtzia* deitzen diote, Jainkoaren amari *Andrea Maria*, ogiari *ogi*, arrainari *arraiñ*, etxeari *etxea*, etxeko jaunari *iaona*, etxeko andreari *andrea*, elizari *elizera*, apaizari *belattera* - *esan nahi baita*, *pulcra terra* 'lur ederra' - *gariari gari*, *urari urik*, *erregeari erregia*, Done Jakueri *laona domne lakue*.(5) ehiztariak bezala, eta *auconas* 'azkonak' deitzen dituen bi edo hiru jaurtigai eskuetan.

(1) ... tienen el mismo aspecto y características en lo que se refiere a ropas y lengua.

... *ils ont le même aspect et les mêmes caractéristiques vestimentaires et linguistiques.*

(2) comen todos los alimentos mezclados en un solo puchero

Ils mangent tous les aliments mélangés dans une seule marmite.

(3) Si los vieses comer, los tomarías por perros o cerdos que comen


Si tu les voyais manger, tu croirais voir des chiens ou des cochons manger.


(4) ...pues tienen una lengua totalmente salvaje

Puisqu'ils ont une langue totalement sauvage

(5) A cualquier lugar que vaya el navarro o el vasco, suele llevar el cuerno colgado del cuello

Partout où se rend le navarrais ou le basque, il porte une corne autour du cou.

2.2  **E**lkartu kide batekin, eta ariketaren erantzunak alderatu.



3. NOLAKOA OTE ZEN ORDUKO EUSKAL HERRIA?

Aurreko testua irakurrita, argi dago nola ikusi zituen Picaud erromesak Erdi Aroko euskaldunak. Baina, nola irudikatzen dituzu zuk orduko jendea, bizimodua eta hizkuntza?

3.1 Irakur itzazu ondoko galderak, eta seigarren orriko eskema gogoan, idatzi gai bakoitzari buruz pentsatzen edo imajinatzen duzuna.

Nik esango nuke...

1. Goazen Erdi Aroko Euskal Herriko hiri garrantzitsu batera: Pompaelora (Iruñea). Nolako jendea aurkituko genuen hiriko kale eta auzoetan?


2. Zein hizkuntza entzungo zen garai haietan, zure ustez, Iruñeko kaleetan? Eta Euskal Herriko beste bazterretan?

3. Erromako Inperioa desagertzean, zer gertatuko zen latinarekin? Erabiliko zen? Nork? Zertarako?

4. Hizkuntza idatzia asko erabiliko zen orduan? Zein hizkuntzatan idatziko zen?

5. Nola iritsi ote zaigu orduko euskararen berri?

Oharra: Galdera hauen guztien erantzunak dokumentalean aurkitu ahal izango dituzu.

3.2  Elkartu ikaskide pare batekin, aurreko galderen erantzunak alderatu, eta gaiaz labur hitz egin. Ikaskideekin mintzatu ondoren, irakurri berriro galderak eta zeure erantzunak, eta nahi dituzun erantzunak aldatu edo molda itzazu.

Dokumentala ikusi bitartean: Apunteak hartu

Aurreko orrian Erdi Aroaz dakiguna edo imajinatzen duguna idatzi dugu. Jarraian, garai horri buruzko dokumentala ikusiko dugu, eta uste horiek konfirmatu, zehaztu, moldatu edo erabat baztertuko ditugu. Horretarako, jakina, dokumentalak kontatuko digunari arretaz erreparatu beharko diogu.

4. APUNTEAK JASOTZEKO AHOLKUAK

4.1 Apunteak hartzeak atentzioa mantentzen, ideia garrantzitsuei erreparatzen, eta ideia horiek gogoratzen lagundu ahal digu. Jarduera interesgarria izan daiteke, beraz, gauza berriak ikasteko. Baina lana ondo antolatzen ez badugu, dokumentalaren haria bera gal dezakegu. Horrelakorik gerta ez dadin, hona hemen apunteak hartzeko aholku batzuk.

1. Presta ezazu oharrak jasotzeko orria.

Dokumentala ikusten hasi aurretik, presta ezazu oharrak jasotzeko orria. Orria atalka banatzea komeni da oharrak behar bezala antolatuta izateko. Hona hemen eredu bat.

	X.-XV. MENDEAK	X.-XV. MENDEAK
BIZIMODUA		
HIZKUNTZAK		
GERTAERAK		

- Adibide hau ikusi ondoren, presta ezazu dokumentala ikusi bitartean apunteak hartzeko zeure orria.

2. Ideia garrantzitsuak bakarrik jaso.

Oinarrizko ideiatzat jotzen dituzunak, arreta eman dizutenak, harritu zaituztenak...

3. Apunteak hartzean ez saiatu esaldi osoak idazten.

Ohar azkarrak hartu (hitzak, esaldiaren zatiak...), ideia gogoratzen lagunduko dizutenak, baina arreta eta denbora galaraziko ez dizkizutenak.

4. Dokumentala ikusi ondoren, jaso dituzun oharrak arretaz irakurri, ideiak argitu, eta ondo antolatuta eta adierazita garbira pasatu.

4.2 Alderatu zeure apunteak ikaskideenekin, eta behar diren moldaketak egin: ideia berriak sartu, oharren bat aldatu, aberastu, zuzendu...

Oharra: Jasotako oharrak oso lagungarriak izango dira hurrengo ariketa egiteko, edo besterik gabe, dokumentalean ikusitakoaz mintzatzeko.



Dokumentala ikusi ondoren: Kontatzeko eskema

Dokumentalean ikusitakoa ahoz edo idatziz kontatu beharko bage-
nu, ondo antolatutako eskema batek asko erraztuko liguke lana. Ekin
diezaiogun, bada, geure eskema prestatzeari.

5. ESKEMA URRATSEZ URRATS

A. Eskema prestatzen hasteko, dokumentalean agertu diren gai potoloak zerrendatuko ditugu. Zerrenda horretan burura datozkigun ideia esanguratsu guztiak jasoko ditugu, eta orri batean jasoko ditugu idazkerari gehiegi erreparatu gabe.

A.1 Hemen duzu balizko zerrenda bat. Gai guztiak egokiak dira? Baten bat lekuz kanpo dago? Zein? Gai nagusiren bat falta da?

Ideien zerrenda

- * Aymeric Picaud erromesaren ekarpena.
- * Herrien antolamendua aldatu: herriak, herri-sareak, herribilduak.
- * Erromako Inperioaren desagertzea eta ordezkapena.
- * Nafarroako Erresumaren sorrera.
- * Latinaren presentzia gizartean.
- * Hamaika kultura, hamaika hizkuntza.
- * Hizkuntzen arteko desoreka: etxean, administrazioan....
- * Gizarte antolamendua: aristokrazia, burgesia, eliza....
- * Euskara batu zaharra.
- * Donejakue Bidearen eragina.
- * Euskararen erabilera: non, zertarako....
- * Musulmanak Euskal Herrian.
- * Musulmanen eta erromatarren arteko guda.
- * Hizkuntza erromantzeen sorrera.
- * Ahozko kulturaren garrantzia.
- * Antonio Breschiren ekarpena.
- * ...



B. Bigarren urratsa, zehazten joatea izango da. Zein dira garatu nahi ditugun gaiak? Zeri buruz mintzatu nahi dugu? Zer kontatu nahi dugu? Gogoko bizpahiru ideia hautatuko ditugu, eta adibidean bezala, ideia horiek eskemaren lehenengo zutabean jasoko ditugu.

	Ideia nagusiak	Zehaztapenak
<p style="text-align: center;">“Nik hitz egin nahi dut Aymeric Picauden istorioari buruz.”</p>	<p>1. <i>Aymeric Picaud</i> <i>erromesaren ekarpena</i></p> <p>2.</p> <p>3.</p>	

B.1 Zein beste bi gai buruz hitz egin nahi zenuke? Pentsa ezazu eta orri zuri batean zeure eskema prestatzen hasi.

C. Hirugarren urratsa, aukeratu dugun ideia nagusi bakoitzari buruzko datu esanguratsuak gogoratzea, eta datu horiek, ahal bezain ondo antolatuta (kronologikoki, atalka...) eskemara ekartzea izango da.

C.1 Adibidea garatzen jarraitzeko, Aymeric Picaudi eutsiko diogu berriro. Horretarako, lehenengo eta behin, irakurri ondoko datuak, eta Aymeric Picaudi dagozkionak azpimarratu.

- a. Euskaldunak zikinak, txerriak bezalakoak jaten.
- b. XII. mendekoa
- c. Konpositorea.
- c. Itzelak idatzi euskaldunei buruz.
- e. Fraide frantziarra.
- f. Euskal Herriko herri-musika aztertu.
- g. Lizarran pasatu egunak.
- h. Toscanan jaioa.
- i. Euskarazko lehenengo hiztegia egin.
- j. Codex Calixtinus idatzi.
- k. Euskara txakurren zaunka iruditu.
- l. Idazlea.
- m. Euskal Herrira etorri Donejakue Bidean.



C.2 Badakizu nori buruzkoak diren gainerako datuak?

C.3 Osatu eskema Aymeric lagunari buruzko datuak ahal bezain ondo antolatuz.

Aymeric Picaud


Idazlea →

→ Lizarran pasatu egunak

Itzelak idatzi euskaldunei buruz

C.4 Zeure eskema amaitzeko, aukeratu dituzun gainerako ideia nagusiekin lan bera egin; gaiak azaltzeko datu esanguratsuak gogoratu, eta datu horiek goiko adibidearen antzera antolatu.

C.5 Behin eskema amaituta, idatz ezazu gaiaren aurkezpena. Ez ahaztu idatzitakoa behar bezala berrikusten.

C.6  Ikaskide batekin elkartu, eta prestatu dituzuen eskemak lagun, aukeratu dituzuen puntuei buruz mintzatu.

Ondorioak eta auto-ebaluazioa

Edozein lan egin ondoren, oso garrantzitsua da egindakoa ebaluatzea eta ondorioak ateratzea. Horretarako, orri honetan egin dugun lanari erreparatuko diogu, ikusi dugun dokumentala baloratuko dugu, eta egindako ariketarekin ikasi duguna aztertuko dugu.

DOKUMENTALARI BURUZKO IRITZIA.

1. Dokumentala zure gustukoa izan da?..... 1 2 3 4 5

- Zergatik?

2. Gaia interesgarria iruditu zaizu? 1 2 3 4 5

- Dokumentalak eskaini dizkizun hiru ideia interesgarri aipatu:

a.

b.

c.

ARIKETAN IKASITAKOAREN BALORAZIOA.

3. Apunteak hartzeko aholkuak
- Aholkuak lagungarriak izan dira dokumentalak esandakoa jasotzeko? 1 2 3 4 5

- Zergatik?


4. Eskemak prestatzeko teknika
- Interesgarria iruditu zaizu eskemak prestatzeko teknika? 1 2 3 4 5

- Zergatik?

- Lagungarria izan da eskema gaiari buruz mintzatzeko? 1 2 3 4 5

Erantzunak

1. ariketa: Erdi Aroaren eskema osatu.



2. ariketa: Aymeric Picaud eta euskaldunak

Nafarrek eta euskotarrek itxura eta ezaugarri berberak dituzte janariei, jantziei eta hizkuntzari dagokienez, baina begitartea zuriagoa dute euskotarrek nafarrek baino.

Nafarrak belaunetarainoko oihal beltz laburrekin janzten dira, eskoziarren erara, eta lauarcas ‘abarkak’ deitzen dituzten oinetakoak erabiltzen dituzte, ondu gabeko larru iletsuz eginak, oinetara lokarriz lotuak, oinazpiak soilik inguratu eta gainerakoa agerian uzten dutenak. Ilezko gainjantzi beltz batzuk erabiltzen dituzte ordea, luzeak, ukalondoetarainokoak, azpilduradunak longainen antzera, saias deitzen dituztenak.

Zinez itsusi janzten dira eta itsusi jan eta edaten dute. Nafar etxeko guzti-guztiek, hala jopuak nola ugazabak, hala neskameak nola ugazabandreak, jateko guztia lapiko bakarrean nahasita jan ohi dute, koilararekin barik bakoitzak bere eskuekin, eta edan edalontzi bakarretik edaten dute. Jaten ikusiko bazenitu, jaten ari diren txakur edo txerrizat hartuko zenituzke. Berbetan entzungo bazenitu, adausika ari diren txakurrekin oroituko zinateke, hizkuntza erabat basatia baitute: Jainkoari Urtzia deitzen diote, Jainkoaren amari Andrea Maria, ogiari ogi, arrainari arraiñ, etxeari etxea, etxeko jaunari iaona, etxeko andreari andrea, elizari elizera, apaizari belaterra —esan nahi baita, pulcra terra ‘lur ederra’—, gariari gari, urari urik, erregeari erregia, Done Jakueri laona domne lakue.

Noranahi doala nafarra edo euskotarra, adarra eraman ohi du idunetik zintzilik, ehiztariak bezala, eta auconas ‘azkonak’ deitzen dituen bi edo hiru jaurtigai eskuetan.

5. ariketa: Eskema urratsez urrats

a. ariketa: Ideien zerrendan lekuz kanpo dagoen puntua: "Musulmanen eta erromatarren arteko guda".

c. ariketa: Aymeric Picaudi dagozkion datuak: a., b., c., e., g., i., j., k., l. eta m. Gainerako hiru datuek Antonio Breschi konpositore italiarrari dagozkio.

Aymeric Picaudi buruzko datuak:

